

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familienak) ordaintzeko familientzako 2024ko laguntzetarako deia egiteko Aiarako Udaleko alkatetik 2024ko apirilaren 15ean emandako dekretuaren laburpena

BDNS(Identif.): 754749.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/754749>).

Lehenengoa: onuradunak

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean Aiarako udalerrian erroldatuta daudenak, baldin eta, diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta egon badira Aiarako udalerrian, eta oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

Bigarrena: xedea

Deialdi honen xedea da Aiarako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen EAEko edozein udalerrietako udal kiroldegiko bazkide izateagatik, banaka nahiz familian, ordaintzen dituzten 2023ko kuoten gastuak ordaintzen laguntzea, baldin eta jarduera horiek Aiarako Udalak eskaintzen ez baditu.

Ez dira diruz lagunduko instalazioetan egiten diren kirol jarduerak edo bestelako erabilerak.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Alkatearen 2024ko apirilaren 15eko 206 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu ziren.

Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak jasota daude EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan, zeina Aiarako Udalak onetsi, eta ALHAOn argitaratu baitzen 2020ko urtarilaren 27ko 10. zenbakian.

Oinarriak eta eskaera ereduak Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarakoudala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdi honen diru zuzkidura 6.000,00 euro da.

Hau izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerririk horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturalekoa izango da, oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatuta.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak aurkeztu behar dira beteta.

Arespalditza, 2024ko apirilaren 15a

Alkatea

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA